



euskal
eskola
publiko
komunitarioa
iruten

Eztabaidarako txostenaren laburpena

2018ko urria



www.lab.eus

AURKIBIDEA

Sarrera	05
Zer da hezkuntza	05
Zer nolako hezkuntza sistema nahi dugu?	06
Nola sortu dezakegu Euskal Herrirako nahi dugun hezkuntza sistema?	06
Zein neurri proposatzen ditugu datozen lau urteotarako?	07
Hezkuntza esparru osoari begira	07
Egungo sare publikoari begira	08
Egungo ikastetxe kontzertatuei begira	08

Sarrera

LAB bere Hezkuntza Egitasmoa berritzeko prozesuan murgilduta dago, prozesu parte hartzailea izan nahi du eta gure afiliatu guztiei irekia. Azken ikasturtean LABen egituraren hausnarketa mamitsu bezain garrantzitsua egin dugu, gure Hezkuntza Egitasmoa Berritzeko lehen urrats gisa. Hilabete luzez, horretarako bereziki sorturiko lan talde nazional konfederal anitza, irakaskuntzako nazio lan taldeak eta Zuzendaritza Konfederalak ondu duten proposamenaren laburpena da eskuetan duzuna. Ordu luzez eztabaidatua, garatua eta adostua. Gure asmoa, LABen barne hausnarketa bat egitetik harantzago doa, askoz harantzago, dokumentu hau oinarri hartuta Euskal Herriak behar duen Hezkuntza Sistema eraikitzeke herri adostasunaren bila goaz, gure herriaren garapena sozial, ekonomiko eta kulturalaren zutabe nagusia hezkuntza delako. Adostasunak behetik gora eraiki behar ditugu, etxetik hasita. Proposamen eraikitzaileak jarrera eraikitzailea eskatzen du, horregatik zuena da hitza: irakurri, hausnartu, entzun eta proposatu.

Zer da hezkuntza?

Nork erantzuten duen arabera, gauza bat ala bestea izan daiteke.

Egitura ekonomiko eta politikoaren kontrola duen elitearentzat, indarrean dauden baloreak eta jarrerak birproduzitzeko mekanismoa da hezkuntza; nazio, genero nahiz klase hegemonikoaren baloreak eta jarrerak, hain zuzen ere.

Aldiz, zanpaketarik gabeko jendartea sortu nahi dugunontzat, hezkuntza mundua hobetzeko prozesua da; mendeetan zehar eliteen mesedetan eraikitako arrazakeria,, patriarkatua eta klasismoa deseraikitzeke aukera.

Hezkuntzak ezin du bere kabuz klase sozialak edota patriarkatua desegin, horretarako iraulketa soziopolitiko eta sozioekonomikoa beharrezkoa da. Baina hezkuntzak azpiratutako giza-taldeak ahalduntzen lagun dezake, iraulketa horretarako baldintza subjektiboak hobetuz.

Horretan aritu dira mundu osoko hainbat eta hainbat herritar eta horretan ari gara euskaldunok ere. Estatuek ezarritako oztopoen gainetik, hezkuntza eredu propio bat garatzen joan gara. Frankismo garaian ikastolak sortu genituen eta 80. hamarkadatik aurrera eskola publikoa euskaldundu eta eraldatu genuen. Udako Euskal Unibertsitatea sortu eta unibertsitate publikoetan euskal adarrak garatu ditugu. Euskalduntzea ez ezik: Euskal Curriculum sustatu dugu; hezkidetzaren alde lan egin dugu; pedagogia aktiboen sustatzaile izan gara; eta langileon seme-alabek hezkuntza duina jaso dezaten gogor borrokatu dugu.

Bide oparoa dugu egina. Baina ez da nahikoa. Azken urteotan arazoak eta erronkak pilatzen ari dira: Estatuetatik datozkigun inboluzio joerak, euskalduntze prozesuaren mugak, teknologia eta balore berrien eragina, hezkuntzaren azpifinantziazioa, segregazioa, sexismoaren betiketzea... gobernu autonomikoek ez dute borondaterik edo ez dira gauza erronka hauei behar bezala heltzeko, gainera, burujabetzarik gabe ezinezkoa

zaigu Euskal Herriak behar duen hezkuntza eraikitzea. Eta hori gutxi balitz, hezkuntza komunitatean ez dago gutxieneko adostasunik. Zatiketa eta ika-mika garaiak gehiegi luzatzen ari dira.

LAB sindikatuak bere ekarpena egin nahi du, etorkizunari begirako oinarri komun batzuk jartzeko. Hona hemen gure proposamena. Lehenik eta behin LABeko kideon artean hausnartu eta lantzeko proposamena, ondoren hezkuntza komunitateari aurkeztu eta adostasunak eraikitzeko bokazioarekin sortua.

Zer nolako hezkuntza sistema nahi dugu?

Lehenik eta behin, GUREA izango den hezkuntza sistema nahi dugu, Euskal Herriko hezkuntza sistema. Espainiakoa eta Frantziakoa eredu zentralizatuaren aldean, sistema deszentralizatuagoa irudikatzen dugu euskal hezkuntza sistemarako. Hiru mailaz osatuta legoke:

1) Oinarrizko maila udalek edota eskualdeek osatuko dute. Hauek lukete kudeaketarako eskumena 0 urtetik batxilera eta lanbide heziketaraino.

2) Hiru hezkuntza administrazio, EAE, Nafarroa, Ipar Euskal Herria. Hezkuntza sistema koordinatu, dinamizatu eta gainbegiratu dute.

3) Euskal Herri osorako hezkuntza esparru edo sistema komuna: euskal curriculum komuna, baliokidetzak eta mugikortasun sistemak, unibertsitate esparru bateratua.

Euskal hezkuntza sistemaren ardatz gisa, eskola publiko komunitarioa irudikatzen dugu. Eskola publikoaren eredu desberdinak daude munduan zehar. Ez da berdina Finlandiako eskola publikoa, Alemaniakoa edo Kubakoa. Guk, gure eredu propioa nahi dugu. Espainia nahiz Frantziako publikotasun eredu zentralizatuaren aurrean, Euskal Herriko publikotasun eredu komunitarioa, herritarra, autogestionatua defendatzen dugu. Diru publiko osoki finantziatua eta doakoa. Euskalduna, feminista, pedagogikoki berritzailea, integratzailea. Denona. Euskal eskola publiko komunitarioa.

Nola sortu dezakegu Euskal Herriko nahi dugun hezkuntza sistema?

Trantsizio bat egitea proposatzen dugu, gaur egungo egoeratik etorkizuneko hezkuntza sistemara. Erronka bikoitza da: batetik, hezkuntza sistema burujabea eratzea Euskal Herria osatzen duten hiru lurraldeetan; bestetik, euskal eskola publiko komunitarioa eratzea, hezkuntza sistema horren ardatz gisa.

Hezkuntza sistema burujabea eratzeari begira, EAEko nahiz Nafarroako estatus berriek hezkuntzako eskumen osoak biltzea defendatuko dugu. Era berean, Ipar Euskal Herriko Elkargoa hezkuntzaren gaineko eskumenak hartzen joan dadin saiatuko gara. Horrekin batera, hiru lurraldeak elkarlanean aritzea proposatzen dugu, euskalduntzean, curriculumean edota unibertsitate esparruan. Eta hori guztia sustatzeko, hezkuntza komunitatean hezkuntza sistema propio baten aldeko akordioa proposatzen dugu.

Bestalde, euskal eskola publiko komunitarioa eratzeari begira, egungo eskola publikoaren eta bokazio publiko/komunitarioa duten eskola kontzertatuen arteko konfluentzia estrategikoa defendatzen dugu. Konfluentzia honetarako, beharrezkoa da, batetik, egungo eskola publikoa deszentralizatzea eta autogestio ereduak sustatzea, euskal eskola publiko komunitarioa garatuz; eta bestetik, ikuspegi komunitarioa duten eskola kontzertatuetatik ere (hala nahi duten ikastolak, "eskola libreak" edota bestelakoak) euskal eskola publiko komunitarioarako trantsizioa egitea.

Konfluentziaren bidea gaurdanik jorratu beharko litzateke. Alabaina, egitasmo hori bururaino eramateko, beharrezkoa litzateke hiru esparru administratiboetan estatus berriak inplementatzea. Izan ere, espainiar eta frantziar legedia oztopo da euskal eskola publiko komunitarioaren sorrerarako.

Konfluentzia, Euskal Herriko legedi propioaren arabera eman beharko litzateke. Horrek ez du esan nahi euskal eskola publiko komunitarioaren aldarrikapena hozkailuan sartzea. Aitzitik, gaurdanik jorratu behar dugu aldarrikapen hori, gaurdanik egin behar da borroka ideologikoa, gaurdanik bilatu behar dira horren inguruko adostasunak eta gaurdanik eman behar dira urrats praktikoak.

Zein neurri proposatzen ditugu datozen lau urteotarako?

4 urte hauetan burujabea izango den Euskal Eskola Publiko Komunitarioa eraikitzeko bidea egin behar dugu Euskal Herri osoan, maila instituzionalean, baina bereziki ikastetxez ikastetxe. Baldintzak sortu behar ditugu, ikuspegi komunitarioa duten ikastetxeen arteko konfluentzia prestatzeko.

Hezkuntza esparru osoari begira

- a) Hezkuntzan baliabide publikoak nabarmen handitzea, Europako beste herrialdeekin alderatuta hezkuntzak pairatzen duen azpifinantziazioarekin amaituz. Ratioak nabarmen jaitsiko dira, eskola guztietan.
- b) Segregazio eta diskriminazio mota guztiekin amaitzeko apustu estrategikoa egitea. Administrazioak inklusiorako beharrezkoen indize bat sortuko du eta horren arabera ezarritako gutxieneko eta gehienezko tartean mugitu beharko dira diru publikoz hornitutako ikastetxe guztiak.
- d) Diru publikoz hornitutako ikastetxe guztietan honako irizpide hauek garatuko dira:
 - Euskarazko murgiltze ereduak
 - Hezkidetza
 - Euskal Curriculumak
 - Pedagogia aktiboak
 - Ebaluazio eredu eraginkorra
 - Parte hartzea eta gardentasuna.
 - Laikotasun erreala.

- Doakotasun erreala.
- Herrian txertatua egotea eta herri eragileekin elkarlanean aritzea.

e) Udalen parte hartzea indartzea,

f) Langileei ezarritako murrizketa oro bertan behera utzi. Lan baldintza egokiak bermatu kolektibo guztietan eta sare guztietan. Prestakuntza-sistema sakonki birmoldatu. Langileen egonkortasuna bermatu. Lan baldintzen estatalizazioari aurre egin eta negoziazio kolektibo erreala berreskuratu.

g) Berritzeguneak (EAE) nahiz irakasleen laguntza zentroak (Nafarroa) berrantolatzea.

Egungo sare publikoari begira

Egungo eskola publikotik, herri eta auzo eskoletan oinarritutako euskal eskola publiko berrirako trantsizioa egin beharra dago. Eskola publikoan autogestio ereduari eta parte hartzeari ateak irekitzea funtsezkoa da horretarako. Hori guztia lortzeko, beharrezkoa da:

- a) Eskola publikoarentzat gaur egungo erronken aurrean behar bezala erantzuteko baliabide nahikoak, bai herrigune handietan baita landa eremuko eskolei dagokionean ere. 0 urtetik hasita doakotasun osoa bermatuz.
- b) Errenta baxuko eta jatorri atzerritarreko ikasleen segregazio prozesuari aurre egiteko, epe jakin batean premiazko plana.
- c) Eskola publiko autogestionatuak sortzea, ziurrenik hasieran egitasmo piloto gisa, eta zabaltzea, beti ere diru publikoaren kudeaketa gardena bermatuz.
- d) Eskola publiko guztietan, hezkuntza komunitatearen parte hartzea eta erabakimena indartzeko neurriak hartzea, Eskola Kontseiluaren erreformatik hasita. Zuzendaritza eredu gerentzialari bidea itxiz.
- e) Laikotasun erreala bermatu beharra dago, hala ospakizunei nola curriculumari dagokionez.
- f) Hezkuntzako langileen egonkortasuna bermatzea lehentasunezkoa da eskola publikoetan hezkuntza egitasmo sendoak garatu ahal izateko. Lan eskaintza publiko zabalekin batera, egonkortasuna hobetzeko formulak arakatu beharko lirateke. Era berean, LEP eredu eta sarbide sistema oro har berrikustea proposatzen dugu.

Egungo ikastetxe kontzertatuei begira

Eremu kontzertatuan askotariko egitasmoak daude: ikuspegi komunitarioaz aritzen diren egitasmoetatik hasi eta hezkuntza elitista helburu duten horietaraino. Ikuspegi komunitarioz aritzen direnei dagokionez, euskal eskola publiko komunitarioaren norabidean elkarlanean aritzeko akordio estrategikoa egitea proposatzen dugu, beren

hezkuntza jarduera bermatzeko beharrezkoa den finantziario publikoa jasoz. Hezkuntza elitista helburu duten eskolek, aldiz, ez dute diru publikorik jasoko.

Euskal eskola publiko komunitarioaren norabidean kokatu eta ondorioz finantziario publikoa jasoko luketen eskola kontzertatuetan honako urrats hauek ematea planteatzen dugu:

- a) Errenta baxuko eta jatorri atzerritarreko ikasleen segregazio prozesuari aurre egiteko, epe jakin batean ezaugarri horietako familiak erakartzeko planak.
- b) Laikotasun erreala. Erljioa, hezkuntza egitasmo eta jardueratik at. Kontratazioetan, irizpide erlijiosorik ez. Ospakizunetan kutsu erlijiosorik ez.
- c) Hezkuntza egitasmoaren titularra hirugarren bat baino (enpresa, fundazio edota orden erlijiosoa), bertako hezkuntza komunitatea izatea hobetsiko da. Parte hartzea bermatuz eta zuzendaritza eredu gerentzialarekin amaituz.
- d) Doakotasun erabatekoa, horretarako hileroko kuotek eta kooperatibista izateko kuotek desagertzera jo beharko lukete.
- e) Diru publikoaren kudeaketa gardena.
- f) Kontratazio batzordeak ezartzea eta berdintasunean, merituan eta ahalmenean oinarritutako hautaketa prozesua bermatzea, kontratazioetan diskriminazio oro ekidinez.
- g) Langileen lan baldintzak eskola publikoarekiko homologatzeko trantsizioa.